

GUaiXE.net



Triku Trail mendi lasterketa igandean Etxarrin



Kirola >> 13

Arbizuko San Juan festak despeditu gabe San Pedroak iritsi dira Izurdiagara, Arruazura, Unanura, Lizarragabengoara eta Altsasura



Sakanerria >> 8



Akordeoilari lagun

>> 14-15

UTZITAKOA

Ur festa goxoak hartuko dituzte ibarreko igerilekuek

Gozamenez Koordinakundeak antolatuta, Irurtzunen, Uharte Arakilen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzen eta Altsasun izanen dira

>> 5

Foruzaingoa eta Ertzaintza, elkarlan protokoloa indarrean

Koordinazioa hobetuko dute

>> 6

Birziklatze Laborategiak aurreneko altzari bilduma du

Batutaren fruituetako bat da

>> 7

Isunen kontrako bilkura deitu du Irurtzungo Udalak

Gaur, 19:30ean, Foru plazan

>> 9

**San Juanetako argazkiak:
www.guaiXE.net**

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20
ra
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Ange
ZORIONAK guape-tona!! Ospatu nahi du-gu, e! Muxu asko. Zure koadrila.



(a)
Zure dizdirak, alaitasunak eta argitasunak urtez urte handitzen doaz. Nire bihotza bete duzu. ZORIONAK ortzadar maitea. Muxu mila!!!



Katxo
ZORIONAK!! Erretiro ederra izan eta primeran ibili!!! Eroskiko zure lankideak.



Oier Ongay
ZORIONAK potoko!!! Urte bat beteko duzu!! Etxeko printzeari muxu handi-handi bat Iraia eta amatxoren partez!



Irati Aldaz
Iparragirre
ZORIONAK gure etxeko txikiari. Muxu POTTOLO bat eta segi beti bezain alai eta MAITAKOR.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garagarriak- garilak 27-3

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

La Banda del jefe Bigun.

Garagarriaren 27an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Urtzi tabernan.

Irurtzungo abesbatza.

Garagarriaren 29an, igandean, 11:50ean Lakuntzako elizan.

Bizikleta irteerak

XXIII. Gasteizko zeharkaldia.

Garagarriaren 29an, domekan, 8:30ean Burunda klubeko mendi bizikleta taldearen bajeatetik. 40 km.

Deialdiak

Adierazpen Askatasuna. Isunik ezi!
Garagarriaren 27an, ostiralean, 19:30etan Irurtzungo Foru Plazan.
Irurtzungo Udala.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garagarriaren 27an, ostiralean,



20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Garagarriaren 29an, domekan,

20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada.

Garagarriaren 30ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

FESTAK

Altsasu:

San Pedro

San Pedro zelaia altsasuarren zain

Altsasuarrak, atzera ere, San Pedro ermitaren inguruan elkartuko dira domekan. Udaletik hainbat ohar zabaldu dituzte. Batetik, 10:30erako zelaia bidea itxita egonen dela eta autoz joan nahi duenak Urdiaindik abiatu beharko duela. Ordu horretatik aurrera autoak udal igerilekuetan eta aldameneko futbol zelaian aparkatzeko aukera izanen da.

Ingurumena zaintzeko dei berezia egin du udalak, guztia joaterakoan bezain garbi uzteko eta behar bezala babesteko. Horregatik, zelaian barna jarritako edukiontzia eta kontainerrak erabiltzeko deia egin du. Altsasuko Udalak suak partekatzeko deia egin du. Aldi berean, suak zuhaitz txikien ondoan ez egiteko eska-



tu du. Edalontzi birziklatuak erabiliko dira zelaian jarritako barraketan eta komunak ere jarriko dituzte udalak.

Egitaraua

10:00etan Udalbatza, txistulariekin batera, San Pedro zelaia abiatuko da.
10:45ean Auzatea eta zortzikoa.
14:30ean Bazkariak.

17:00etan Udalbatzaren agurra zelaian barrena. Puruen banaketa. Alkateak zortzikoa zabalduko du.

20:00etan 1:00etara Dantzaldia Gaubela taldearekin.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Joana Otxoa-Errarte arkitektoa,
etxe pasiboez...

Esataria: *Maiden*

>> **Urdiain**

Aire-korronterik izanen ez duen etxea

Energia kontsumitu gabe girotutako etxebizitza pasiboa eraikitzen hasi berri dira Iturtxulo kalean

Etxebizitza pasiboak energia kontsumitu beharrik gabe urte gutxian tenperatura atsegina mantentzeko gai diren eraikinak dira. Horretarako kokapen eta isolamendu egokiak eta eraikin estankoa behar dira. Halaxe azaldu digute Peter Albrecht eta Juana Otxoa-Errarte arkitektoek, Ester Chuecak eta Jesus Uhartek Urdiaingo Iturtxulo kaleko 14an eraikitzen ari diren etxebizitza proiektatu dutenek.

Jasangarritasunaren kontzeptua eraikuntzara hainbat modutan eraman da eta etxe pasiboa da horietako bat. Etxea girotzeko, neguan epeldu edo berotzeko eta udan freskatzeko, energiarik ez erabiltzea edo apenas erabiltzea da helburua. Horretarako, etxebizitza

tza estankoa egiten dira.

Ezaugarriak

Otxoa-Errartek azaldu duenez, kokapen egokiak eguzkitik jasotako bero guztia aprobetxatzea dakar. Isolamenduaren garrantzia ere azpimarratu du urdiaindarrak. Kanpoko airea ez sartzeko etxebizitzak guztiz itxita egon behar du. "Sartu eta ateratzen den airea guk nahi dugulako izanen da".

Hotza ez sartzeko leihoak zabaltea saihesten da. Horregatik, beroa berreskuratzen duen makina eguneko 24 orduetan martxan da eta airea berritzen du. Arkitektoek azaldu digutenez, tresna horrek etxe barruko airea hartu eta beroa kendu ondoren kalera botatzen du. Aldi berean, kaleko haize berria hartzen eta iragazten du eta kaleratutako airearen beroa ematen dio. Aire berritu hori, tenperatura egokian etxe guztian barrena banatzen da. Udan, barruko beroa kanporatu egiten da, giro



Juana Otxoa-Errarte, Peter Albrecht eta Jesus Uhart.

freskoagoa mantentzeko. Hala ere, biek ez dute ukatzen neguko une jakinetan bero iturri gehigarri bat beharko dela.

Arkitektoek azpimarratu dute eraikuntza mota horrek obra zuzendaritzaren lan gehigarria eskatzen duela: "ezin da zirrikiturik egon beroak handik ihes eginen lukeelako. Pareta eta teilatua elkartzen diren tokietan zinta berezia jartzen dugu estankotasuna lortzeko. Horregatik, ezinbestekoa da obran lan egiten duten pertsona guztiak helburuaren berri zehatza izatea". Aste honetan hiru bisita egin dituzte obrara; eraikuntza normal baten kasuan, berriz, astean behin joaten dira. Langileak trebatu beharraz aritu zaigu Otxoa-Errarte eta azaldu digu gaur bertan Donostiako Altza auzoko Lanbide Heziketako institutuko ordezkariak Urdiainen bisitan izan direla, "eraikuntzako profesionali zuzenduta etxe pasiboetan oinarritutako prestakuntza eskaini nahi dute".

PassivHaus Institutua

Etxe pasiboen araudia ezartzen duen erakundea da eta dagozkion ziurtagiriak ematen dituenak. Azken 30 bat urteetan Europar, Canadian eta AEBn 15.000 bat dira ezaugarri horiek dituzten eraikinak (etxebizitza blokeak, familia-bakarrekoak, kiroldegia, eskolak, konbentzio zentroak, elizak, haurtzaindegia, bulegoak...). Ziurtagiria lortzeko azterketa pasa behar du etxebizitzak. Bestek beste berogailurako behar energetikoa neurtzen da. Urteko ezin du metro karratuko 15 kW baino gehiago kontsumitu. Gainera, urteko kontsumoak ezin du metro karratuko 120 kW baino handiagoa izan.

Urdiaingo etxebizitzak duen kokapenagatik eguzkiaren beroaren aprobetxamendu handirik ezin du izan. Albrechtek esan

digunez, kalkulu kontserbadoria egin dute eta metro karratuko 22 edo 23 kW kontsumituko du. "Etxe hau egungo kode teknikoak jarraituz eraikiko bage-nu energia gehiago kontsumituko luke. Horrela eginda, %80 gutxiago kontsumitzen da". Arkitektoak aitortu du eraikuntza aurrekontua %10 eta 15 artean garestitzen dela. "Baina energia kostuak murrizten direnez 8 urtetan amortizatuta dago". Estankoa den neurtzeko, eraikinaren kanpoko aldean kea egiten duen makina bat jartzen da kea sartzeko ikusteko. Bestetik, hai-zegailu bat martxan jartzen da eta etxea haizez bete eta hustu egiten du, persiana, leiho eta bestelakoetatik aireak ihes egiten duen jakiteko. Nahi gabeko aire berritzaile orduko 0,6koa izan behar du. Ohiko pisu batean, berriz, lauzpabostekoa da.

Urdiaingo etxea

Iturtxulo 14ko etxea ziuurrenik XVI. mendean eraikikozen. 1953an berritze handia egin zuten etxean ia etxe erdia botaz eta haren gainean berria jaso. Jabeek hura berritzeko asmoa zuten baina eskatzen zuten inbertsioak eta izanen ziren emaitzek etxe berri bat eraikitzea eraman zituzten, eta etxe pasiboaren alde egin zuten. Behe solairua, lehena eta teilatupekoa izanen ditu. Azken horrek, girotze kontzeptuak egoki funtzionatu dezan, eragina izanen du. Eraikinak berezitasun batzuk ditu. Sarrera iparraldean du eta hegoaldeko fatxada sarrerako kalea baino 2,30 metro altuago dago. Ezker-erdi bi etxarte luze ditu eraikinak, fatxada luzeenak horiek izanik. Beraz, zuzeneko eguzki argi bakarra hegoaldean jasotzen du, baina mendiak eta inguruko eraikinek mugatu egi-

tendite. Aldi berean, fatxada horretan oinarrituko da eraikinaren funtzio pasiboa. Horretarako beirateak jarriko dituzte hegoan, etxe "berogailu" bihurtuz.

Garai bateko etxeen modura, horma zabalak izanen ditu Iturtxulo-koak, 42,5 cm-koak. Alemaniatik ekarritako adreiluekin eginen dituzte kanpoko paretak (buztin arinduz egin eta barruko gelaxkak haitz-zuntzez beteak). Eraikinaren kanpoko hormek kargahormarena eginen dute, fatxada-ko pilareak kenduta. Teilatuak egurrezko egitura izanen du. Etxeko solairuetako zolako plan-txa eta balkoietakoa ez da bat izanen, horrela kanpotik etxera hotza edo beroa sartzeko eragotziko dute. Balkoia egiteko etxe-plantxarekiko 8 cm-ko isolatzailea jarriko



dute eta metalezko egiturak sartuko dituzte. Haietan porlana botaz eginen da balkoia. Estankotasuna lortzeko paretak barrutik kusia izanen dute eta teilatupean egurrezko sabai izuna jarriko dute. Bestalde, ur beroa lortzeko teilatuan eguzki plaka jarriko da eta jabeek biomasa estufa bat jarri nahi dute. Albrechtek azaldu digunez, 7 edo 8 kW-ko batekin aski litza-teke baina merkatuan halakoak opatzea zaila da oraingoz.

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Unamuno

Ondarria industrialdea z/g
ALTSASU
948 562 829
Faxa: 948 563 002
unamuno@piensosunamuno.com

ALOKATZEKO ETXEA 260e/hilero

www.etxefabrika.com

INFORMAZIATEZ etxefabrika@outlook.es

634 722 994 zure independentzia nahi?

etxe ekonomikoak BIZITZEKO PREST!

APARTAMENTUAK
sukaldea
egongela
komuna
logela
ALTZARIZ
HORNITUTA

Etxarri Aranatz



Zoila Berastegi

astekoa

...banintz...

Uste dut Hemingwayek baino eragin handiagoa izan zutela nigan Lourditasen kontakizunek: “*mundu oso bat dago hiri-ko kaleetan barna; beltzak, horiak, jai hasieran txuriak ziren gorriak, saltzaileak, mozkorrak, lapurrak, artistak... imajina ezazu hiri “estasiatu” bat edota biharamunik gabeko bederatzi*

egun edota denboran geldituta-ko orgasmo bat. Imajinatu Dionisioren erreinua. Gordeko sekretu bat? –nik baietz buruarekin eta berak ahotsa jaitsiaz- Ni Dionisia izan nintzen Iruñan”. Nik banekien Lourditasek bere bizi-penak zertxobait puztutzeko joera zuela, baina Dionisia izateak, zer esan nahi zuen ez jakin

arren, izugarri erakarri ninduen. Izan ere, nire bizitza betikoa zen; betiko gauza aspergarritz goraino betetako kutxa bat; edozein egunetan zakarrontzira botaz gero, inork faltan botako ez lukeena! Beraz, uztailearen 6tik 14ra oporrak hartu nituen. “Bakarrik?” –amak. Noski! Dionisia batek ez du inor behar,

hirian munduarekin dut hitzordua, pentsatzen nuen nire baitan. Eta baita egin ere: txurigorritz jantzia eta motxilan lau kulero sartuaz hartu nuen Iruña aldeko bidea.

Kalimotxoz blai pasa nituen lehenengo egunak. Edonorekin. Edonon. Edonola. Txarangaz txaranga. Hirugarren egunera-

ko Dionisia zen nire buruaren jabe. Baina uztailearen 9an bukatu zen guztia. Jendetzak, garra-siek eta adrenalinak ez zidaten besterik ikusten utzi eta ez dut deus gogoratzen. Bihotz pareko orbainagatik ez balitz, ez nuke jakingo Iruñan egon nintzenik ere; banintzenik ere. Orain jakin badakit.

barrutik kanpora Sarea!

Sakantzen Sarea, izenak ondo dioen moduan, sare bat besterik ez da. Baina, zer da Sarea? Hainbat definizio ezberdin izan ditza-ke: armiarma sarea, arrantza-lek bere uztak jasotzeko beharrezko erreminta ere bada sarea, konexio gune bat, modan dagoen hitza, onurak ekartzen dituen hitza, hitz positibo bat...

Eskualde honetan, aspaldidanik sarean lan egiten hasiak gara. Sarean antolatuta gaude. Eta ez bakarrik Sakantzen Sarea.

Eskualdeko estrategian, Sakana 2020 Plan Estrategikoan sarean lan egin dugu eta sarean lanean jarraituko dugu. Utzugane (Sakanako Garapen Gunea) sarezerai- kitako espazioa da, Sakandar orori zerbitzu eskaintza zabal bat eskaini ahal izateko. Bertan kokatzen da gure sarea.

Orain arteko pertsona zein enpresen arteko erlazioak, lehia- kortasun erlazio batean oinarritu dira, enpresa handi eta aberats- gehienak gero eta indartsuago

bihurtuz eta enpresa txiki eta ertainak handiek mugitzen duten ekonomiaren menpe geratuz.

Gaur egungo mundu globalizatu honetan, non adibidez, India, Vietnam, Txile, edota Israel bezalako herrialdeak gero eta lehia- korragoak diren, gure inguruko enpresek beharrezkoa dute funtzionamendu eta erlazio sare berriak eraikitzea estatu mailako zein atzerriko enpresa edota herrialdeei aurre egin ahal izateko.

Oraina eta etorkizuna, beraz, enpresen zein pertsonen arteko elkarlan erlazio batean sostengatzen da. Sarean lan egitera behar- tuta gaude. Ez daukagu beste irtenbiderik. Gure indarrak bertan gehitu beharra daukagu. Asko daukagu hobetzeko, indar asko gehitzeko eta horma asko apurtzeko. Konfiantza da oinarria. Bera gabe ezingo dugu elkar- rrekin bizi.

Gutxinaka-gutxinaka Sakana- ko ekosistema eraikitzen joan

beharra daukagu. Guztion horma eraiki beharra daukagu. Bakoitzak ezarritako harri txiki hori hasiera besterik ez da izango, eta horretarako “guztiok pika bat eman dezagun gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten”.

Bertrand Russellek zioen moduan: 2+2= 5.

Sakantzen Sarea

objektibo tik



Errepublikarra:

Batek baino gehiago enpresa handi batek telebistan bere burua iragartzeko erabili zuen lelotik entzuten zuen soilik Errepublika hitza. Abiadura handiko koroatze eta forudun bihurtzeak hiru koloretako banderak atera ditu kalera. Hainbat sakandarrek errepublikaren alde Iruñean antolatu diren manifestazioetan parte hartu dute ere.



Amodioaren bandera:

Horixe adierazi nahi baitu lizar adar batek San Juan egunean Altsasuko balkoi batean. Maitasun adierazpen eskalatzaile bat baino gehiago izan zen asteartean. Maiz «ureztatu» dezala amodioa bikoteak, balkoiko loreak bezain eder izateko.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano

ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

Ur festa goxoak Irurtzunen hasiko dira

Bost herrietako igerilekuak gauez zabalduko dira gazteendako, ostegunean lehena Irurtzunen

Sakanako Gozamenez Koordinakundeak antolatuta, Irurtzuno, Uharteko Arakilgo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko eta Altsasuko igerilekuak ur festa goxo bana hartuko dute. Heldu den hilean izanen dira gazteei zuzendutako eskaintzak. Afarria (ogitartekoa eta freskagarria 3 eurotan), musika, jolasak eta ikuskizunak iraga-

rritu dituzte Koordinakundeak. Antolatzaileek gazteendako une dibertigarriak iragarri dituzte eta parte hartzera gonbidatu dituzte gazteak. Ur festa goxo guztiak 21:00etan hasiko dira.

Ur Festa Goxoak Gozamenez programaren zati dira. Sakanako Gozamenez Koordinakundeak gazteei sexualitatearen ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta aberasgarria eskaini nahi die. Gozamenez programak gazteen

Egutegia	
Data	Herria
Garilak 3, osteguna	Irurtzun
Garilak 16, asteazkena	Uharteko Arakil
Garilak 17, osteguna	Altsasu
Garilak 23, asteazkena	Etxarri Aranatz
Garilak 24, osteguna	Lakuntza

artearen sexualitateari buruzko hausnarketa eta arlo ezberdinen inguruko eztabaida sustatzea du helburu. Horregatik, publikoak eta ohikoak diren espazioetan sexualitatearen presentzia azaldu nahi du.



Ur festa goxoak igerilekuan gauez ibiltzeko aukera emanen du. ARTXIBOA

Sakanako Plan Estrategikoa garatzeko langilea behar da

Interesatuak uztailearen 4a baino lehen aurkeztu behar dute curriculuma

Sakanako Plan Estrategikoa aurkeztu zuten duela gutxi aipatu plana bulkatu duten eragile sakanadarrek. Bada, aipatu plan estrategikoa garatzeko duen langile edo teknikaria behar da. Sakanako Garapen Agentziaren baitan,

industria eta energiaren arloan, lan deialdia egin da.

Zehazki, Sakanako Plan Estrategikoa biltzen diren ekintzen garapena egin behar du kontratatuko den langileak: eskualdeko industriaren egoera eta gaitasun tekniko-teknologikoen azterketa; ikerketa, berrikuntza eta garapen programa eta ekimenen azterketa

eta informazioa; enpresen arteko elkarlana sustatzea hainbat esparrutan (berrikuntza, komertzializazioa, ekintzaitza partekatua, internalizazioa...); Eskualde Garapena eta enpresen kokapen estrategikoa lantzeko, alde askotariko proiektuen kudeaketa; eta, berrikuntza teknologikoa, I+G+T eta teknologia transferentziaren arlo-

ko zerbitzuak.

Lanpostuaren eskakizunak

Eskakizunak honakoak dira: Ingeniaritza Industrial, Ekonomia edo Enpresen Administrazio edo Zuzendaritzan lizentziatu edo diplomatu titulua; 3 urteko esperientzia; EGA tituluaren ziurtagiria edo proba baliokidea; ahozko

eta idatzizko ingelesa ezagutza ertain edo altua; eta gidabaimena eta ibilgailu erabilgarria.

Garilak 4

Izena emateko epea. Curriculumako ondoko helbidera bidali: garapena@sakana-mank.com. Informazio gehiagorako: Nafarroako Lan Zerbitzua.

Bosgarren hilabetez langabezia behera

Maiatza akaberan aurreko hilean baino 23 sakandar gutxiago zeuden enplegu bulegoan izena emanda, 1.680 dira lan bila daudenak

Otsailean hasi zen langabetuen kopurua murrizten, eta lau hilabeteetan 120 pertsona dira zerrendan ez daudenak (102 gizonetako eta 18 emakumetako). Sakana langabeen %54,4 emakumetakoak dira (914, aurreko hilean baino 6 gutxiago) eta gainontzeko %45,6 gizonetakoak (766, 17 gutxiago). Adinari dagokionez, langabetuen %55,76k (752,

20 gutxiago) 45 urte edo gehiago ditu. 25 eta 44 urte artekoen adin multzoa da langabe gehien duen hurrengo adin tartera, %42,92 (721,24 gutxiago). Azkenik, 25 urtez azpikoen taldea dago, %12,32 (207, 21 gutxiago). Sakanan Nafarroako langabeziaren %3,42 gauen maiatzean (herrialdearen %3,22 populazioa gara).

Sektoreak

Zerbitzuen arloan pilatzen dira sakandar gehien lan eskaerak



Zorua konpontzeko lanak Altsasun.

%58,27 (979,5 gutxiago). Industrian aritzeko eskaerak %26,07 dira (438, 14 gutxiago). Eraikuntzan lan egi-

teko prest dauden eskaerak %6,96 dira (117, 16 gutxiago). Lehen sektorerako eskaera kopurua %1,9

da (32, 2 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez duten sakandarrek %6,79 dira (114, 10 gutxiago).

Langabezia herrira		
Herria	Langabetuak	Aldea
Arakil	66	-1
Irurtzun	189	+13
Irañeta	9	-1
Uharteko Arakil	62	+3
Arruazu	2	-1
Lakuntza	81	-4
Arbizu	78	+4
Ergoiena	12	+1
Etxarri Aranatz	161	-14
Bakaiku	18	0
Iturmendi	21	-1
Urdiain	32	-3
Altsasu	786	-10
Olatzagutia	135	-8
Ziordia	28	-1
Sakana	1680	-23

ZERGATIK JARRI AIRBUMP® A EETAN?



CITROËN C4 CACTUS BERRIA AIRBUMP® BABESAREKIN



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahigo du TOTAL KONTSUMO MISTOA (100KM/L) / CO2 EMISIOA (KM/G): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,6/82 - 107

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

» Olatzagutia

Euskararen kultur astearekin despeditu zuen ikasturtea eskolak

Euskara eta kultura uztartzen zituen egitarauarekin despeditu zuten ikasturtea Olatzagutiko Herri Eskolan. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izan zuten: jolasak, kirola, musika eta dantza elkarrekin lotuz.

Ikasleek sortutako jardueren artean Olatzagutiko euskararen mapa dago. Herrian euskara erabiltzeko aukera ematen duten denda, erakundeak edota elkarteak identifikatu ondoren, euskararen aldeko leloak zabaldu zituzten gune horietan. "Gure hizkuntza eskolako eremutik herrira zabaltea izan zen ekintza honen helburua, ikasleek ikus dezaten euskara kalean ere bizirik dagoela" esan digute ikastetxetik.

Zientziak ere izan zuen bere tartetxo herriko eskolako getetan



Marikalanbreren eta Eñaut Elorrietaren bisitekin despeditu zuten kurtsoa.

Marikalanbreren esperimientuekin. Eta astea despeditzeko, Eñaut Elorrieta musikariarekin egoteko aukera izan zuten ikasle, irakasle nahiz gurasoek. Lehen Hezkuntza-

ko ikasleekin izandako solasaldia- ren ondoren, kantuz agurtu zuten ikasturtea. Olatzagutiko eskolak esker- rarak eman nahi dizkie jarduera hauetan kolaboratu duten guztiei.

» Etxarri Aranatz

Herriko hegoaldeko dermia ezagutzera

Garilaren 5ean Udako Toponimia Ibilbidea gidatuko du Jose Luis Erdoziak

Etxarriko Toponimia Batzordeak uztailaren 5erako Udako Toponimia Ibilbidea antolatu du. Asmoa herriko hegoaldeko dermia ezagutzera izango da. Goizeko 9:00etan hitzordua jarri dute udaletxe aurrealdean, eta Jose Luis Erdoziak gidatuko du Etxarriko hegoaldeko dermia ezagutzeko toponimia ibilbidea. 3. orduko ibilbidea

izanen da.

Izena eman garilaren 3a baino lehen

Ibilbidea joan nahi dutenek euren asistentzia konfirmatu beharko dute garilaren 3ra arte, 948 460 930 edo 606 239 008 telefonoetan edo kultura@etxarriaranatz.com postan. Antolatzaileek adierazi dutenez, euria barra- barra eginez gero, bertan behe- ra geratuko litzateke ibilbidea.



Beheko basoan ibili dira aurretik.

SAKANA

Foruzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa areagotzeko akordioa sinatua

Bi polizia-kidegoen artean informazioa eta baterako operazioak trukatzeko protokolo bat jasotzen du

Nafarroako Gobernuko Presidentza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrasede eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburu Estefania Beltran de Herediak Nafarroako Foru Poliziaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaprotokolo bat sinatu zuten herenegun Arkauten. Hala, bi polizien arteko lankidetzaren formalizatu eta arautu da. Bide batez, dagoeneko existitzen diren harremanak finkatzeko eta programa, plan, estrategia, material eta teknologian elkarrekin laguntzan sakontzeko. Orain arte Altsasuko polizia-etxea eta Ertzaintza neguko bide-zaintzan eta genero-indarkeria kasuetan aritu izan dira elkarrekin.



Javier Morras eta Estefania Beltran de Heredia protokoloa sinatzen. UTZITAKOIA

Protokoloaren testuan jasotzen denez, koordinazioa beste eremu batzuetara zabalduko dute: polizia-prozedurak eta-operatiboak, antolatutako sare kriminalen kontrako borroka eta prebentzioa, ohiko

delinkuentzia, zirkulazio-bideak moztea (baldin eta autonomia-erki- dego biei eragiten badiete), eta abar. Urgentziazko eta ohiko komunikazio bideak ere zehaztuak gel- ditu dira.

SAKANA

Mank-ek kontu- hartzailea kontratatuko du

Sakanako Mankomunitateak kontu- hartzaile bat kontratatuko deial- dia egin du. Lanaldi osoko lanpos- tua izanen da. Interesatuek euren curriculumak garilaren 28ra arte aur- keztu ditzakete Altsasuko enplegu bulegoan edo ibarreko erakunde- ak Lakuntzan duen egoitzan. Eus- kara proba egin behar dutenek agor- rilaren 21ean pasako lukete eta pro- ba teorikoa eta praktikoa agorrilaren 25ean litzateke, bietan ere, 9:00etan.

» Arakil

Larrunera eta Sarako kobazuloetara joateko gonbita

Arakilgo Udalak txangoa antolatu du garilaren 5erako

Arakilgo Udalak txango polita anto- latu du uztailaren 5erako. Larruneko tren famatua hartuz Larrun mendi- ra igotzea da plana, gero bazkaldu eta arratsaldean Sarako kobazulo- tara bisita gidatua egiteko.

Autobusa 7:45ean abiatuko da Irur- tzungo Matxaingo parkinetik eta txangoa egitera animatzen direnek 9:30ean hartuko dute Larrunera igotzeko tren. 11:30ean Azkaine ezagutuko dute eta 13:00etan baz- kari ederrean bilduko dira Hotel du Ponten. Arratsaldean, 16:00etan, Sarako kobazuloetara bisita gida- tua egingen dute.

Izena emateko epea zabalik dago uztailaren 3ra arte. Horretarako, Ara- kilgo udaletxera jo behar da: 948 500 101 / 634 584 226 telefono- ak, arakilkultura@gmail.com posta, Facebook (ArakilKultura) edo Twit- ter (@ArakilKultura).

» Altsasu



UTZITAKOIA

Aldaketa PPre- zinegotzi aulkian

PPko zinegotzi Francesc Paris aspal- di ez zela Altsasuko Udaleko bilku- retan parte hartzen. Popularra lan kontuengatik kanpoan da eta kargu- utzi du. Popularren Altsasuko zerrendan bigarren zen Ignacio Perez Fuentesek zinegotzi kargu hartu zuen herenegun, Paris orde- zkatzeko. Zinegotzi berria gasteiz- rra da eta 43 urte ditu. Gaur egun langabezian dago, baina aurretik segurtasun pribatuaren arloan lan egin du.

Perezek adierazi duenez, "ilusioz eta gogoz" hartuko du ardura; "legegint- zaldia bukatzeko gutxi falta bada ere herritarren bizitza hobetzeko nire esku dagoen guztia egingen dut".

» Irurtzun



Irurtzungo festek badute kartel iragarlea

Garilaren 16tik 20ra ospatuko dira Irurtzungo festak. Haiek iragarriko dituzten kartelak aukeratzeko lehia- keta deitu zuen udalak eta dagoene- ko irabazleen berri badugu. Helduen mailan Mikel Urriza Pascual barañain- darra izan da saritua. Haurren mail- an, berriz, Irune tenorio Perez irur- tzundarrak eskuratu du saria.

SAKANA

Eskola kontzentrazioetarako laguntzak eman ditu gobernauak

Irurtzungo, Etxarri Aranazko eta Olatzagutiko udalek guztira 66.187,76 euro jasoko dituzte

Eskola kontzentrazioak dauden 36 herrietako udalei 825.000 euroko diru- laguntza ematea erabaki du Nafarro- ako Gobernuak. Hala Irurtzungo Uda- lak 48.349,93 euro jasoko ditu; Etxa- rri Aranazkoak 16.899 euro eta Olatzagutikoak, azkenik, 938,83 euro. Eskola kontzentrazioetan ikastetxea dagoen herriko ikasleek aparte ingu- ruko herrietako ikasleak hartzen dituzte. Udalei horrek sortzen dien kostuagatik jasotzen dute udalek aipatu diru-laguntza.

Gobernuak Artzain Eguna eta Irurtzungo azokarako laguntzak onartu ditu

Bien antolatzaileen artean 22.453,49 euro jasoko dituzte

Nafarroako Gobernuak turismoa garatzeko deialdiaren barruan diru- laguntza bana eman die Uharteko Arakilgo Aralar Mendi elkarteari eta Irurtzungo Udalarari, Artzain Eguna eta Arakilgo eta Irurtzungo azoka- ren antolatzaileei. hain zuzen ere. Aralar Mendi elkarteak Artzain Egu- na antolatzeko 53.445 euroko aurre- kontua izanen du aurten eta haren %40,97 (21.899,56 euro) Turismo eta Merkataritza Zuzendaritzaren laguntzaren bidez estaliko du. Irur- tzungo Udalak azoka antolatzeko 4.960 euroko aurrekontua du eta laguntzak haren %11,16 estaliko du (553,93 euro).

SAKANA

Birziklatze laborategian lanean

Bigarren eskuko materialetatik produktu sortu, ezagutzak eta trebeziak partekatu eta ikasteko aukera ematen du

Batuta taldeak osatzen duten bost kideek esku artean hiru egitasmo dituzten egitasmoetako bat da Birziklatze Laborategia. Jabi Bergara da kideetako bat eta **Beleixe Irratian (FM 107,3)** esan duenez, krisiaren ondorioz gizarte ohiturak aldatu dira, “krisiarekin kontsumoa murriztu dugu eta hau bukatu ondoren espero dut gizartea pentsatzen jarraitzea hau ezin dugula mantendu duela 10 urteko erritmoarekin. Ez dago orekatuta. Jendea poliki-poliki hasi da berreskuratzen eta dauden gauzekin gauza berriak egiten ere”. Birziklatzea, berrerabilpena eta murriztearen aldeko apustua egin dute haiek.

Hala, ibarreko mendietan eta udaberriko kolore txurian inspiratutako aurreneko altzari-bilduma sortu dute Batutakoek: Sakana zuria. Paletak aulkiak egiteko erabili dituzte; sofak egiteko pertsianak; bizikleten pedalekin eta gurpilekin arropak zintzilikatzeo eskitokiak... Txuriak eta urdinak. “Bildumatik kanpo dauden beste

gauza batzuk ere egiten ditugu: loreak jartzeko gurdiak, zintzilario txikiak...” argitu du Bergarak.

Jardun gehiago

Birziklatze Laborategiak beste hiru jarduera atal ere baditu. Haietako bat altzarien berreskuratzea da, “jakintza dugunez, gauzak konpontzen ditugu”. Hirugarren atalari *Egizuzuk zeuk* izena eman diote. “Zerbait egiteko asmoa izan dezakeen pertsona edo taldeei zuzenduta. Egin nahi duten hori egiteko tresnarik, ideiarik edo tokirik ez badute laborategiarekin harremanetan jarri eta laguntzeko eta erakusteko prest gaude” esan du Bergarak **Beleixe Irratian (FM 107,3)**.

Hezkuntza da Birziklatze Laborategiak duen laugarren eta azken atala. Lan jakin bat nola egin azalduko lukete Batutakoek. “Horregatik, birziklatzeari buruzko ikastaroak ematea pentsatzen ari gara”. Edo *repair café* modukoak antolatzea. “Tailer bat prestatu eta hitzorduak jartzen dira jendea biltzeko, hilean behin edo bitan. Jendeak konpondu beharra duten gauzak eramaten dituzte eta han



Ardo azokan euren altzarietako batzuk erakutsi zituzten Batutakoek.

konpontzen dakien jendearekin elkartzeko da”. Egitasmoa prestatzen ari dira eta udalei aurkeztuko diete “herria sortzeko beste

modu bat baita. Egoteko modu ezberdin horrek herritarren artean harremanak zabaltzeko balio du” ziurtatu du Batutakoak.

Zabaltzen

Birziklaketa Laborategiaren altzari bilduma Etxarriko Zorri Azokan, Olatzagutiko azoka berezi batean eta Altsasuko Maiatzeko Gurutzeko azokan izan da ikusgai. Horretaz aparte, Etxarriko Osto-Gorridan altzari bat dute, baita Iruñeko Dormitaleria 54n ere. “Erantzun ona baina salmenta eskasak”, laburbildu taldeko kideak. Iruñerriko Mankomunitatea Batutakoekin harremanetan jarri da haien blogean euren altzariak erakusteko. Etorkizuneko asmoa da web orri bat jendeak balio ez duten gauzak han ikusgai jartzeko. Sakana da haien lan eremua. “Lortu behar dugu guztien arteko harremanen bidez bigarren eskuko gauzak mugitzea. Gauza berriak ez erostea. Agian aldamenekoak du behar duzun hori eta ez du erabiltzen”.

Harremanetarako

[birziklaketalab.blogspot.com/es/](http://birziklaketalab.blogspot.com.es/)
Batuta.sakana@gmail.com

Irurtzun

Udalak irurtzundarren adierazpen askatasunaren eskubidea murrizteko helburua dituzten isunak salatu ditu

Gaur, 19:30ean, Irurtzungo Foru Plazan kontzentrazio isila egingen da udalak deituta

5.700€ baino gehiago ordaindu dituzte isunetan

Adierazpen Askatasuna. *Isunak ez!* leloa izanen du gaurko elkarretaratzeak. Hainbat herritarrek jasotako isunak salatuko dira elkarretaratzean: “adierazpen askatasunaren eskubidea ezin da, ez mugatu, ez zigortu (isunak) manifestariaren kolorearen arabera”. Horregatik, isun horiek baliorik gabe gelditzea eskatuko dute, “manifestazio zein adierazpen eskubidearen kontrakoak baitira”. Aldi berean, Irurtzungo Uda-

lak Carmen Alba Gobernu Ordezkariekin eta Irurtzungo Guardia Zibilaren arduradunarekin bilera izanen du.

Zergatiaz

Irurtzungo Udalak nabarmendu du adierazpen eskubidea eta manifestazio eskubidea erabiltzeagatik Nafarroa dela estatuan izaera politikoko isun gehien pilatzen dituen erkidegoa. Arlo guztietan eskubide eta askatasunetan “herri xehea murrizketa latzak jasaten” ari dela eta horren ondorioz protestak zabaldu direla azaldu du Irurtzungo Udalak. Espainiako Gobernuak, Gobernu Ordezkaritzak eta

Guardia Zibilak herritarren protestak jazarri edo ekiditeko neurriak hartu dituztela salatu du udalak, horretarako isunak erabiliz.

Irurtzundarrei eta arakildarrei jarritako isunak elkarretaratze baketsu eta istilurik gabekotan gertatu direla nabarmendu du udalak. “Isunak Madrilgo Gobernuaren eta Nafarroako Gobernu Ordezkariekin jarrera anti-demokratikaren ondorio zuzena dira. Ahaztu gabe isun hauetako asko Irurtzungo Guardia Zibilaren jarrera normalizatu batekin ekidin zitezkeela”.

Halako isunen helburua zein



Inasaren itxieraren kontrako mobilizazioak ere zigortu zituzten.

ote den galdetu du udalak: “protesta baketsuari eta herritar izateagatik ditugun eskubideei uko egitea bilatzen da? Herritarren egoera politiko eta soziala lehertzeko

sorgin ehizarik edo probokazio estrategiarik ez ote dago”. Pertsona berdinei isunak jarrita zigor ideologikoa ezartzen ari ote zaizkien ere galdetu du udalak.

Txiki Txiki
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialekua 2 · ALTSASU

IGOA
arraindegia

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxorri Aronatz

maríaeugenia
Arrainak
www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

ZOZKETA GAUR
Barbakoa eta 50€ko txekoa

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

San pedroak 2014

Sanpedroak 2014

IZURDIAGA

>> Garagarzaroak 27, ostirala
20:00etan Txupinazoa.
20:00etatik 22:00etara Otamena, Taskamusi-ek girotuta.
22:00etan Paella, tortilla eta postre txapelketa.
22:30ean Lehiaketetara aurkeztutakoekin herri afaria.
1:00etatik 5:00etara Dantzaldia.

>> Garagarzaroak 28, larunbata
10:30etik 12:00etara Futbol 8.
12:30etik 14:00etara Brum forjarien erakustaldia. Otamena, iturriko plazan.
14:30ean Bazkariak, nork berea.
16:00etatik 18:00etara Mus, briska eta partxis txapelketa azkarrak.
17:00etan Joko eroak eta Zirika Zirkus.
20:30etik 22:30era Mozorro dantzaldia.
22:30ean Zezensuzkoa.
23:00etan Afaria, nork berea.
1:00etatik 5:00etara Dantzaldia.
5:00etan Txistor jatea.

>> Garagarzaroak 29, igandea
11:15ean Meza.
12:00etatik 14:00etara Puzgarriak.
13:00etan Otamena.
14:30ean Herri bazkaria. Ondoren, bakarrizketa.
19:00etan Txokolate jatea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia.
22:00etan Bokata jate orokorra.
 Hau pena ni.



ataitiek.
22:15ean Herri afaia Herriko Itxen.
00:30etik 03:30era Dantzak ta jauziyek Tximeletaakin.

>> Garagarriak 30, astelehena
15:00etan Kuadrilen arteko bazkaia.
17:00etan Itxes-itxeko erronda Kaleaundi Bandarekin.
18:00etan IRRRIEN LAGUNAK Hodei Magoa eta Tiritaxoa ikuskizuneekin.
19:30ean Haurrendako txokolatada.
20:00etan Gazta ta ardua guziyendako.
20:30ean Burus-buruko Pala Txapelketa Finala.
19:00etatik 22:00etara Iruña Taldeko Fanfarria.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataitiek.
22:30ean Herri parrillada plazan.
00:30etik aurria Gaupasa Ostatuben nekatu artio!

12:00etan Asto lasterketa.
15:00etan Bazkari herrikoia.
18:00etan Bordetxe abere zirkua.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Diskojaia.
22:00etan Afaria.
00:00etatik 5:00etara Diskojaia. Trikitixa egun osoan.

>> Garagarriak 29, igandea.

San Pedro.
11:00etan Gosaria
11:00etan Meza nagusia
12:00etan Luntxa
13:00etan Legazpiko musika taldea
15:00etan Bazkaria
18:00etan Pilota partidak:
 12 tantora: Olaetxea-Araña / Mariñelarena-Senar
 18 tantora: Olaetxea-Lazkoz / Ansotegi-Igoa
 22 tantora: Ijurre-Lasa / Loban-Gorriti
20:00etan Auzatea eta festen akabera. Trikitixa egun osoan zehar.

UNANU

>> Garagarriak 26, osteguna
13:00etan Txupinazoa eta auzatea.
15:00etan Bazkaria.
18:00etan Haurrendako joko tradizionalak.
20:00etan Auzatea.
22:00etan Afaria.
 Trikitixa egun osoan.

>> Garagarriak 27, ostirala
12:00etan Haurrendako jolas parkea.
15:00etan Bazkaria.
17:00etan Haurrendako jolas parkea.
20:00etan Auzatea.
20:30etik 22:00etara Musika tximeleta taldearekin.
22:00etan Afaria.
00:30etik 4:00etara Musika Tximeleta taldea.
 Trikitixa egun osoan.

>> Garagarriak 28, larunbata.
Mozorro eguna.
11:00etan Gosaria.

LIZARRAGABENGOA

>> Garagarriak 27, ostirala
19:30ean Txupinazoa.
20:00etan Aate.
21:30ean Afaria.
23:30etik 2:30etara Dantzaldia.

>> Garagarriak 28, larunbata
12:30ean Etxez etxeko erronda trikitilari-ekin.
16:30etik 20:00etara Puzgarriak.
19:00etan Aizkolariak.
20:00etan Aate.
21:30ean Afaria.
23:30etik 2:30etara Dantzaldia.

>> Garagarriak 29, igandea
12:30ean Etxez etxeko erronda trikitilari-ekin.
16:30etik 20:00etara Puzgarriak.
20:00etan Enkartzelada: euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira.
20:00etan Aate.

FESTAK

Arbizu:

San Juanak



>> Garagarriak 27, ostirala.
Preso eta iheslarien eguna.
10:00etan Dianak herriko txitulariekin.
12:00etan Tailerrak haurrendako.
12:00etan Aate.
12:00etan Pintxo txapelketa.
12:00etan Pintxo dastaketa. Triki-bertsopintxo-poteoa.
17:30ean Haurrendako izozkiak.
18:00etan Haur ginkana.
20:00etan Aate eta buruhandiak.
20:00etan Kontzentrazioa.
20:30etik 22:00era Dantzaldia The Trikitiens taldearekin.
00:00etatik 3:30era Dantzaldia The Trikitiens taldearekin.

>> Garagarriak 28, larunbata.
Jubilatuaren eguna.
12:00etan Altxorraren bila.
12:00etan Jubilatuen meza.
12:30ean Herriko helduei origarri banaketa.

13:00etan Jubilatuen luntxa.
13:00etan Jon Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.
15:30ean 4 x 4 erakustaldia.
16:30ean Truk txapelketa.
17:00etan Bikote bihurria. Kixka antzerki taldea.
20:00etan Aate.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

>> Garagarriak 29, igandea.
Haurren eguna.
12:00etatik 15:00etara Zorri Azoka.
12:00etan Aate. Zotola.
12:00etatik 14:00etara Jolas parkea.
14:30ean Haurren bazkaria.
16:00etatik 19:00etara Jolas parkea.
16:30ean Mus eta briska txapelketa.
20:00etan Aate.
20:30ean Fran eta Zuriñe (Hesian).
22:30ean Su artifizialak.



Uharte Arakil:

San Juanak



JUAN CARLOS

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Erta Elizondo Arruabarrena
ARKITEKTOA
 www.arkiterta.es
 klik egin!

- Eraikuntza proiektuak
- Egituren diseinu eta kalkulua
- Energi zertifikatuak
- Aholkularitza
- Barruko/kanpoko apainketa
- etab.

zugarreta 54, Etxarri Aranatz
 948 460 444 687 060 787
 arkiterta@outlook.es

NEREA
 ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.
 Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

SAKANA



Herenegun sakandarrak Pasaian izan ziren, itsasontziaren gila kokatzeko lanak ikusteko. UTZITAKOIA

San Juan baleontzia, gertuago

Ontziaren gila kokatu zuten eta hemendik aurrera lanak bisitatu ahal izango dira. Baleontziaren egurra Sakanatik eraman dute

Donostia 2016 Europar Kultur Hiriburutzako proiektuaren egitasmo nagusienetakoa XVI. mendeko San Juan baleontziaren errepika izanen da. Asmoa baleontzia enbaxada mugikorra izatea da, eta bide batez, Euskal Herriko ontzigintza osatzen zuten lanbide, industria, hornitzaile eta kolaboratzaile sarea dinamizatzea.

San Juan baleontziaren errepika Pasai San Pedroko Ondartxoko Askorreta ontziolan egiten ari dira, Albeola fundazioak eta Donostia 2016 fundazioak bulkatura, eta asteazkenean ontziaren bizkarrezurra kokatu zuten: ontziaren gila. Halaber, hemendik aurrera ontziola zabalik egonen da interesatuen bisitak hartzeko. Ekitaldia festa bilakatu zuten eta Kukai eta Oreka TX taldeek emanaldi polita egin zuten. Bertan Gipuzkoako, Donostiako eta Pasaia aldeko alkate eta zinegotziak, kultur eragileak eta Sakanako Mankomunitateko eta udaletako ordezkariak izan ziren. Tartean zeuden Man-eko presidente Aitor Karasa-

torre eta Adolfo Araiz gerentea, Sakanako Garapen Agente Iker Manterola, Etxarri Aranazko alkate Joxi Bakaikoa, Altsasuko alkate Garazi Urrestarazu, Ergoienako alkate Maribel Senar, Dorraoko kontzejuko Garbiñe Hurtado, Unanuko kontzejuko ordezkariak, Joxe Mari Alegria basozaina eta beste hainbat udal eta kontzejuko ordezkari.

Egurra, Sakanakoa

Izan ere, gauza jakina da San Juan baleontziaren errepika egiteko egurra Sakanako basoetatik atera dela. Aurreko urtean Sakanatik 200 haritz enbor eraman ziren Zeraingo zerrategira asmo horretarako. Zerra-lanetarako, gainera, bi langile sakandar kontratatu zituzten. Enborrak moztu ahala Ondartxora eramaten dituzte, baleontzia han eraikitzen. Asteazkenean ontziaren gila kokatu zuten eta hortik aurrera, baleontzia osatzeko lanekin jarraituko dute.

Altsasun abiatuko da ontzigintzaren "bidea"

Euskal ontzigintzaren urrezko

aroa azaltzeko barruko aldetik kostaraino doan "bidea" osatu nahi dute proiektuaren sustatzaileek. Bidea Sakanan hasiko da, ontzigintzan erabiltzeko basoak nola kudeatzen ziren erakutsiko duen ibilbide batekin. Aurten egiten dute. Altsasun egonen da, Dantzalekura iritsi aurretik dagoen aldapan, ezkerretako bide batek abiatuko litzateke eta Usolarrainen bukatuko litzateke.

Sakanako hariztietan azalpenak jaso ondoren, Zerain zerrategitik eta Beasain edo beste herrietako oletatik pasaz Ondartxoko Askorreta ontziolan bukatuko du interpretazio ibilbideak. Herrietako museo eta bestelako baliabide turistikoak hartuko litzuzkeen sarea osatzeko aukera legoke.

San Juan baleontzia

22 metro luze, 7,5 metro zabal eta 200 tonako pisua izanen du baleontziak. San Juan baleontzia 1.563an eraiki zuten Pasaian eta bi urte geroago hondoratu zen, Kanadako Red Bayn. Hantxe jarraitzen du gaur egun. Unescoren munduko urpeko ondarearen zigiluan agertzen da baleontzia.

Udalarekin

Irurtzungo Udala Inasak utzi duen hartzekodunen zerrendan dago. Enpresak ez zuen 2012ko kontribuzioa eta ekonomi jarduera zerga ordaindu eta udalari 42.000 zor dizkio. Hartzekodunen lehiaketa bukatzeko zain daude udalean.

Txiki Iriarte alkateak azaldu digunez, prozesua bukatzen denean Inasak industrialde izaten jarraituko du. "Hirigintza unitate bakarra da. Aldaketaren bat egin edo berriro urbanizatu nahiko balitz jabe berriak eskatu behar luke udaletxean".

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Pisu bat alokatzen da Iruñean. Azpilagaña auzoan, Rio Ega kalean. Nahi izatekotan, garaje plaza ere badugu alokatzeko, pisutik gertu. Hots egin 649 30 41 65 telefonora (Nerea).

LURSAILAK

SALGAI

Lur eremua saltzen dut. Bakaiku eta Iturmendi artean. Hots egin 662 16 72 12 telefonora.

Opatutakoak/ galdutakoak

OPATUTAKOAK

Gizezko erloju opatu da. Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan. Bertatik pasa.

GALDUTAKOAK

Urrezko katea eta gurutze bat. Galdu ditugu Altsasun edo Etxarriko Borda jatetxearen inguruan, ekainaren 7an. Sarituko da. Hots egin 948 56 36 89 telefonora.

Ikastaroak

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu,

Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

JAIOTZAK

• **Selene Galarza Stoyanova,** garagarriaren 20an Altsasun.

HERIOTZAK

• **Maria Carmen Goñi Insausti,** garagarriaren 17an Etxarri Aranatzen.
• **Jose Ignazio Flores Berastegi,** garagarriaren 19an Ziurdian.
• **Manuel Urrea Etxabarri,** garagarriaren 21ean Olaztin.
• **Victorina Belaskoain Aznarez,** garagarriaren 21ean Etxarri Aranatzen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

eskelak



Jose Inazio Flores

Zuk ereindakua, ur gozoz hazten eta loratzen diyua. Uzta, zue omenez.

Urdindarrak



Azio Flores Berastegi

Zinena beti hiltzen da beste zerbait izateko.

Arbizuko ezker abertzalea



Axio Flores



Eskerrik asko herritik herriarentzat egindako guztiangatik.

Sakanako Gaztetxeak eta Gazte Asanbladak

» Irurtzun

Inasa, gero eta hustuago

Jarduera gutxi dago Inasan labeak, laminatzaileak, banatzaileak eta bestelako makinak eraman ondoren. Ekoizpen prozesurako erabiltzen ziren tresna gutxi batzuk mantentzen dira. Kutsaduragatik arazoak sor zitzaketan likido eta olioak zituzten egiturak ere hustu dituzte: laminatzaileen filtratze ekipoa, Air Pur azpiegitura, urberoaren dekantatzaile eta banatzailea, baita kloro, gasolioa, azidoak, nitrogenoa, argoia eta beste ere.

Gaur egun laminazioko eta bestelako hobietatik kutsadura kentzeko baimena dute. Egiteko horren ondoren material bizigabez beteko lukete eta porlanez

estaliko. Gainera, Inasako pabilioien barruan zundaketak egiten dituzte maila freatikoa neurtu eta egon litezkeen filtrazioak eragozteko, lur azpiko urak ez kutsatzeko. Egiteko hori Ebroko Ur Konfederazioak eskatuta egiten da.

Egiteko horien ondoren, lastailaren 31n, behin betiko itxeko ez da inolako jarduerarik izan behar Inasan. Itxi ondoren, lan-tegiaren orubean geldituko dira zubi-garabia duten pabilioiak, bulego eta aldagela eraikinak, dau-den porlan zoruak, argindar transformatzailak (50 ppm baino gehiago PCB olio mineralak dituztenak salbu), suteen kontrako ur bilte-

gia eta gas naturala jasotzeko azpiegitura.



GRUPO TANATORIO


IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
 (24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Lourdes Andueza Ganboa

Zorionekoak gu,
bizitza zurekin konpartitu dugulako.
Eta orain berriro hastera,
zure bizipoza oroimenean.
Izugarri maite zaitugu.

Padrenekuek
Arruazun



Victorina Belascoain Aznarez

Ude etorri ta fan ein za
beye beti gu biyotzetan yonko za abuela.

Zu bilobak Ainhoa, Ainara, Oihana ta Nerea
Etxarri Aranatzen, 2014ko ekainaren 21ean.

Iker Borrega Arnedo

Maite zaitugun
guztiok
zure falta
sentitzen dugu.

2012ko ekainaren 25ean.




Azio

Hii ingerra
etzakiuk ehittuko,
gui beitten beti.
Eskerrik asko.

Arbizuko kuadrila



Jose Ignacio Flores


"Axio"ren familiak eskertu nahi ditu,
bere ondoan eta familiarekin egon
diren osasun zerbitzuko asistentzia
eta jendeak, orohar, emandako
laguntza eta berarekiko
izandako esker ona.

Familia



Jose Ignacio Flores Berastegi "Axio"

Sentimendus sakona goguen herriya
biyotzien sakana zaletasunien guu kirolak
aguen beti euskera arimen euskal herriya.

sakarrendarren eguna

mustutzen elkarte



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA
 948 564 275
 Foru plaza 23-1
 Altsasu
 argi@guaixe.net



Azio Flores Berastegi

Lanbroa zeukat gordeta
kaxa batean,
hirezat,
eta eguzkia
hankak berotzeko
bakarrik bahago neguan.

Lizarrengoko herria



Jose Ignacio Flores Berastegi "Axio"

Gogoan zaitugu.

Aitzkozar elkarte



Pilota

Berria Txapelketan Gorriti txapeldunorde

Ontsalorekin batera, 19-22 galdu zuten Arrese-Galarzaren kontra

Gorriti pilotari uhartearra Berria Txapelketako txapela jantzi gabe geratu da. Ontsalorekin osatu zuen bikotea uhartearrak, biak ere Erreka taldekoak, eta Lemoako Arrese eta Galarza izan zituzten aurkari senior mailako final handian. Partida oso borrokatuan, azkenean 22-19 gailendu ziren bizkaitarrak. Meritu handiz, txapeldunorde dugu Gorriti.



Zortzi pilota partida Olaztin

Olaztiko 43. San Migel Binakako Txapelketak 8 pilota partida ekarriko ditu asteburuan Olaztin

Olaztiko Sutegi klubak eta San Migel elkarteak antolatutako 43. San Migel Pilota Txapelketaren barruan, asteburuan 8 pilota partida jokatu dira Olaztin.

Asteburuko partidak

Ostiralean, 20:00etan

3.maila: Montesinos-Koldo / Sergio-Gorka

2.maila: Galu-Biño / Mikel-Xabi

1.maila: Joseba-Unai / Iurgi-Javier

22 urtez azpikoa: Ijorra-Larraia / Azketa-Atxa

Larunbatean, 18:00etan

3.maila: Joseba-Iñigo / Víctor-Luis

3.maila: Aitor-Iñaki / Ondatz-Unai

3.maila: Ibon-Iñaki / Xapa-Mayo

1.maila: Xestero-Andoni / Abraham-Berat



Pilota partidak Unanun

San Pedro egunean, 18:00etan, 3 partida jokatu dira

Unanuko festen barruan, pilota partidak antolatu dituzte igandean, San Pedro Egunean, 18:00etatik aurrera. 3 pilota partida jokatu dira guztira.

Partidak

12 tantora: Olaetxea-Araña / Mariñelarena-Senar

18 tantora: Olaetxea-Lazkoz / Ansotegi-Igoa

22 tantora: Ijorra-Lasa / Loban-Gorriti

Pilota

Ezkurdia eta Zabaleta Sanferminetako Torneoan

BINAKAKOAN ZABALETAK RETEGI BIREKIN OSATUKO DU BIKOA, ETA EZKURDIK BARRIOLAREKIN

Egun gutxi gelditzen dira Sanferminak hasteko, eta Aspek eta Asegarcek Iruñeko festetarako antolatu dituzten jaialdiak aurkeztu dituzte. Bi pilotari sakandar ariko dira bertan: Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta.

Etxarrengo atzelariak Binakako Torneoan hartuko du parte. Zabaletak Retegi Birekin jokatuko du eta garagarriaren 8an sartuko dira lehian. Aldiz, Joseba Ezkurdia bi txapelketatan ariko da. Binakakoan Barriolarekin osatuko du bikoa eta garagarriaren 9an jokatuko dute lehendabiziko partida. Horretaz aparte, lau t'erdiko torneoan ariko da arbizuarra.

Ezkurdia Jaunarenaren kontra igandean



Joseba Ezkurdia Sanferminetako lau t'erdiko torneoan San Pedro egunean sartuko da lehian, finalerdietan. Final laurdenetan Barriola 7 tantotan uztekit datorren Jaunarena izango du ariko igandean Mungian. Irabazleak lau t'erdiko torneoako finala jokatuko du, Sanferminetan, Labriten. Finaleko beste txartela Idoatek eta Aimar Olaizolak dute jokoan, larunbatean Tolosan. Joseba Ezkurdia lan handia egin beharko du Jaunarena menpean hartzeko. Leitzarrak sekulako eskarmentua eman zion final laurdenetan bere maisu izandako Abel Barriolari. Jaunarena sakean, errematean eta peloteoan bikain moldatu zen eta hasieratik hartu zuen aurrea. Ea arbizuarrak leitzarrari tamaina hartu eta lau t'erdiko finalera heltzen den.



Lakuntzako pilota eskolak ikasturteari agur

Aurten sortu da Lakuntzako pilota eskola, eta lehen ikasturte honetako balorazio positiboa egin du Ander Lopetegi sortzaile eta entrenatzaileak. "20 neska-mutiko egon dira lehen ikasturte honetan pilota ikasten eta hurrengo ikasturtean berriro ibiltzeko

gogoz daude" adierazi du Lopetegik.

Ostegunean, hilak 19, ikasturte bukaerako festa egin zuten Lakuntzako frontoian. Garagarriaren jokatutako eskola barruko txapelketako finalak jokatu ziren eta, bukaeran, Joseba

Ezkurdia pilotariak sariak banatu zituen eta eskolako pilotari guztiei diploma eman zien. Txikiak Ezkurdiaekin argazkiak ateratzeko aukera izan zuten eta festatxo borobiltzeko haur eta gurasoendako merendua izan zen, giro bikainean.

Frontenisa

Emakumeen Txapelketa, finalerdietan

Gaur, 19:00etatik aurrera, Etxarri Aranatzan

Mank-ek Etxarri Aranazko Gure Pilota klubarekin antolatutako Sakanako Emakumeen VII. Frontenis Txapelketako hasierako ligaxkako 3. eta azken jardunaldia jokatu zen asteburuan, eta gaur,

3. jardunaldiko emaitzak

Jone-Amair 27 / Leo-Maider 30
Edune-Vanesa 30 / Yanira-Saioa 28
Uxue-Ane 22 / Andrea-Izar 30
Laura-Leire 21 / Garazi-Lohitzune 30

hilaren 27an, finalerdiak jokatu dira, Etxarri Aranatzan.

Finalerdiak

Ostiralean, 19:00etatik aurrera, Etxarri

2. maila:
Laura-Leire / Jone-Amair
Ane-Uxue / Leo-Maider

1. maila:
Izar-Andrea / Yanira-Saioa
Garazi-Lohitzune / Edune-Vanesa

Kirolegia

Altsasuko Kirol Elkartearen batzarra

Gaur, ostiralean, 18:45ean Gure Etxean

Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasuko Kirol Elkarteak bere bazkide-akohiko batzar orokorrera deitu ditu gaur, garagarriaren 27an, ostiralean, 18:45ean Altsasuko Gure Etxeko erakusketako gelan.

Ondokogai-zerrenda dute aztergai: aurreko batzarraren akta irakurri eta onartzea, kontuak irakurri eta onartzea, kirol ekonomiaren balantzea; egitaraua, kideen kuota eta aurrekontuak onartzea eta galde eskaerak.

Txirrindularitza



Odei Juango Espainiako Txapelketetara

Asteburuan Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatuko dira Ponferradan. Afizionatuen mailako Nafarroako selekzioarako Rural Kutxa talde sakandarrean dabilen Odei Juango lakuntzarra hautatu dute. Berarekin batera Julen Amezketa (Seguros Bilbao), Imanol Lafuente, Mikel Ezkietaketa Mikel Azkoiti (Lizarte), Iosu Zabaleta (Rural Kutxa), Sergio Rodriguez (Gipuzkoa) eta Fermin Brieva (Telcom-Gimex) ariko dira. Larunbateko 146 km-ko lasterketan arituko dira. Aipatzekoa da Rural Kutxa talde amateurreko ia plantilla guztia lehiatuko dela Espainiako Txapelketan, 4 txirrindulari izan ezik. Rural Kutxa-k talde kontinental profesionala ere lehiatuko da.

IMANOL ERBITI BAITA ERE

Movistar Team taldean dabilen Imanol Erbiti hiriberriarrak ere parte hartuko du Espainiako Txirrindularitza Txapelketan. Erbiti ostiralean jokatuko den 47 km-ko erlojupekoan ariko da eta igandeko 200 km-ko lasterketan arituko da.

ASTEBURUKO PROBAK

Kadeteak larunbatean Undianon lehiatuko dira, 11:00etan (58,2 km). Juniorrek larunbatean Aiegin dute proba, 17:00etan (78 km). Afizionatuek igandean 95. San Pedro Saria jokatuko dute Irunen, 9:30ean (125 km), eta igandean Atarrabiak hartuko du Migel Indurain martxa zikloturista, 8:00etan (173 km). Bihar BTT lasterketa jokatuko da Zangozan, 16:30ean.

Pala



Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarteko palistak denboraldi hasieran ateratako argazkian.

Napar Eskolen Txapelketako 7 txapela Etxarrira

JOKATUTAKO 9 FINALETATIK 7 ETXARRI ARANAZKO GURE PILOTA ELKARTEAK IRABAZI ZITUEN

Emakumezkoen pala sustatzeko eta Emakumezkoen Pala Eskola berriak bulkatzeko, Nafarroako hainbat pilota eskolek I. Napar Eskolen Txapelketa antolatu dute. Partidak maiatzaren jokatu ziren, 9 mailatan. Ikasturteari bukaera eman zioten, garagarriaren 14an

Etxarri Aranazten final handiak jokatu. Nabarmentzekoa da Etxarri Aranazko Gure Pilota elkarte-ko palisten maila. Jokoa zeuden 9 finaletatik 7 finaletarako sailkatu ziren Etxarri Aranazko klubeko palistak, eta final horietan txapela lortu zuten. Zorionak!

Napar Eskolen Txapelketako finalak

Benjaminen B maila: Maialen (Lekunberri) 15 / Uxue (Artaxoa) 18

Benjaminen A maila: Maddi (Gure Pilota) 18 / Garazi (Irurita) 15

Kimuen C maila: Izaro-Uxua (Gure Pilota) 18 / Saioa-Andrea (Lekunberri) 13

Kimuen B maila: Naroa-Irantzu (Gure Pilota) 18 / Elisabeth-Maddi (Lekunberri) 10

Kimuen A maila: Elai-Saioa (Gure Pilota) 17 / Maitena-Naroa (Gure Pilota) 18

Haurren C maila: Elena-Sarai (Artaxoa) 15 / Nerea-Amaia (Lekunberri) 18

Haurren B maila: Dinora-Ainhoa (Gure Pilota) 18 / June-Elorri (Gure Pilota) 13

Haurren A maila: Amaur-Oihane (Gure Pilota) 18 / Aroa-Naroa (Gure Pilota) 14

Gazteen maila: Uxue-Irati (Gure Pilota) 25 / Andrea-Izar (Gure Pilota) 22

Txirrindularitza

Maialen Aramendia Nafarroako txapelduna

Tafallan jokatu kadeteen mailako Nafarroako Txapelketan lehen nafarra izan zen iturmendiarr

Larunbatean Emakumeen Nafarroako Txirrindularitza Txapelketa jokatu zen Tafallan. Kadeteen mailan 29 txirrindulari iritsi ziren helmugara. Bajo Aragoneko Esther Cañeteren eta Romoviko Iurani Blancoren arteko esprint estuan Cañete nagusitu zen (53:28). Atzetik zetorren taldetxo 1:08ra sartu zen. Tartean zegoen CAF Transport Engineering talde gipuzkoarrean dabilen Maialen Aramendia. Iturmendiarr 4.a sartu zen (54:36), probako lehen nafarra. Hortaz, Nafarroako kadeteen mailako txapeldu-



Maialen podiumaren gorenean.

na dugu. Garagarriaren Ilean Iturmendin jokatu Nafarroako Erlojupeko Txapelketan kadete mailan Nafarroako txapeldunordea izan zen ere Maialen. Zorionak!

Areto futbola

Imanol Arregik Magna Xotan jarraituko du

URTE BATERAKO KONTRATUA SINATU DU

Magna Xotako entrenatzaile Imanol Arregik Irurtzongo taldean jarraituko du beste urte batez. Horrela, bere 14. denboraldia osatuko du talde berdean. Imanol Arregik eta Xotako presidente Tatono Arregik, biak anaiak, asteartean sinatu zuten kontratua.



Arregitarak, akordiora heldu ostean.

Imanol, Xotako aktibo garrantzitsuenetakoa

“Imanol, Xotak duen aktibo inportanteena da. Taldeari sekulako egonkortasuna ematen dio. Klubarekiko duen fideltasuna eskertzen dugu bihotzez, azkenaldian ekonomiko-ki gureak baino hobekien diren eskaintzak izan baititu” adierazi du Tatono Arregi presidentetok.

Imanol Arregi taldearen gehien-go mantentzearen aldekoa da. “Rafa Usinen baja asko nabaritu-ko dugu, ordezkatu ezinezko jokalaria baita. Honen aurrean beste

jokalaririk batzuek aurrera egitea eta ardura gehiago hartzea espero dut”.

Esfortzua eta sakrifizioa

Krisiarengatik azken urteotan aurrekontu murriztagoa du Irurtzongo taldeak eta baja inportanteak ditu. “Baina partida bakoitzean bizia emango dugu eta ditugun hutsuneak esfortzuekin eta sakrifizioarekin estaltzen saiatuko gara”.



Yanira eta Maite, txapeldun bikoitzak

ESPAINIAKO TRINKETEKO TXAPELKETAKO FINALA ETA EUSKAL HERRIKO LIGAKO FINALA IRABAZI DITUZTE YANIRA ARISTORENAK ETA MAITE RUIZ DE LARRINAGAK

Yanira Aristorena etxarriarra eta Maite Ruiz de Larrinaga eulatearra palista bikainak dira eta sekulako bikotea osatzen dute. Ekainaren 14an, gainera, bi final jokatu zituzten eta biak irabazi.

Lehenik eta behin Espainiako Trinketeko Txapelketako finala jokatu zuten Mendillorriko trinketean. Maitane eta Nagore (Gipuzkoa) izan zituzten aurkari. Lehendabiziko setean galtzen hasi ziren Yanira eta Maite, eta nahiz eta 12na berdintzea lortu, 14-15 galdu zuten.



Txapeldunak, txapela jantzita.

Bigarren setean, aldiz, egoerari buelta eman eta 15-7 irabazi zuten

nafarrek. Hirugarren set erabakigarrian izugarri lehiatu ondoren, Yanira eta Maitek lortu zuten garaipena, 10-7, eta txapela.

Jarraian Euskal Herriko Ligako finala jokatu behar izan zuten Gasteizko trinketean. Maria eta Laura arabarren kontra aritu ziren. Nahiz eta aurreko partidatik nekatuta egon, tanto eskas baten aldearekin baina Euskal Herriko txapela jantzi zuten Yanira eta Maitek, 30-29 irabazi ondoren.

Triatloia

Asurabarrena 14.a Donostian

II. DONOSTIAKO HERRI TRIATLOIAN ONGI ARITU ZEN ALTSASUARRA

Igandean II. Donostiako Herri Triatloia jokatu zen (370 m igerian, 10 km txirrindulan eta 2,5 km korrikari). Guillermo Vahl (35:13) eta Ainhoa Larrañaga (37:27) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatloi Taldeko Isidro Asurabarrena 14.a izan zen helmugan (38:27) eta talde bereko Iñigo Maiza 48.a (42:24), probako bigarren kadetea.

Lekeitzio

22. Lekeitzio Triatloian 345 triatleta lehiatu ziren (0,750 m igerian, 21 km bizikletan eta 5 km korrikari). Ryan Bailie (57:21) eta Charlotte Mcshane (1:05:54) izan ziren txapeldunak. Sakana Triatloi Taldeko Iñaki Gallego 240.a izan zen (1:19:28) eta Carlos Manero 290.a (1:23:56).

Iker Mintegi eta Fermin Azkargorta txapeldun Basaburuan



Garagarriaren 15ean Basaburuko Duatloia jokatu zen Gartzaronen. Sakana Triatloi Taldekoek primerako lana egin zuten. Iker Mintegik kimuen mailako duatloia irabazi zuen (km 1 korrikari, 3,1 km txirrindulan eta 500 m korrikari) eta Fermin Askargortak haurren mailakoa (2 km korrikari, 7,5 km txirrindulan eta km 1 korrikari). Horretaz aparte, Iñigo Maiza 3.a izan zen kadeteen proban (4 km korrikari, 11,3 km txirrindulan eta 2 km korrikari) eta Leire Maiza 4.a haurren mailako emakumezkoen duatloian. Ander Villalobosek eta Xabier Borregak ere lan txukuna egin zuten.

Botxa

Lirainak txapeldun

IRATXO BOTXA TXAPELKETAKO FINALEAN 20-7 IRABAZI ZION TXIMELETARI

Iratxo Botxa Txapelketako final handiak ostiralean jokatu ziren, Irurtzongo Iratxo elkarte-ko botxategian. Txapelketan 8 talde lehiatu ziren eta 4 finenak iritsi ziren final aurrekoetara. Finalerdietan AHTrik ez taldeari 6-15 irabazi eta gero, Lirainak izan zen finalista bat. Bere arerioa Tximeleta taldea izan zen, Erik-Agustino-Xabierrri finalerdian 7-15 irabazi eta gero.

Ostiralean lehenik eta behin 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida jokatu zen. AHTrik Ez taldeak 20-6 hartu zuen menpean Erik-Agustino-Xabier. Eta ondoren final handiaren txanda heldu zen. Final



Lirainak taldeko txapeldunak.

lehiatuan, Lirainak taldea finago ibili zen eta 20-7 irabazi zion Tximeletari. Bukaeran, sari ematea egin zuten Iratxo elkartearen.

Futbola

Asteburuan hasiko da Urdaingo II. Futbol Txapelketa

16 talde lehiatuko dira eta finala abuztuko festetan jokatu da

Urdaingo Gazte Asanbladak antolatutako Urdaingo II. Futbol Txapelketa erantzun bikaina izan du. 16 taldek eman dute izena eta asteburuan abiatuko da aipatu txapelketa. Partidak, jakina, Urdaingo futbol zelaian jokatu dira eta final handia agorrileko festetan jokatu da. Asteburuan jokatu da lehen jardunaldia eta partidak ostiralean eta larunbatean jokatu dira.

Asteburuko partidak

Ostiralean

17:00etan: Zorton / The Legends
18:00etan: Piperoxki / Piper Crew
20:00etan: Minavo de Kiev / Iturmendi

Larunbatean

10:00etan: Karrotillo-Altsasu
11:00etan: Bunker / Stifler FC
12:00etan: Aston Billa / Kaymanak FK
17:00etan: Bainik Mendi / Txunkai
19:00etan: Jarra y Pedal / Drunken Soccer

Mendi lasterketak

Unzurrunzaga 6.a Amurrioko Trailean

Etxarriarra probako lehen beteranoa izan zen

Igandean III. Amurrioko Traila jokatu zen. Korrikalariak bi aukera izan zituzten: 12 km-ko proba osatzea edo 25 km-koa. Proba luzeenean 106 korrikalari iritsi ziren helmugara, eta Joseba Urbano izan zen txapelduna (2:02:16). Ander Unzurrunzaga etxarriarrak sasoi betean dagoela erakutsi zuen berriro, eta 6.a iritsi zen (2:08:53), probako lehen beteranoa.

Bestalde, proba motzena 46 korrikalari osatu zuten eta Haritz Kortazar izan zen azkarrena (1:00:58). Mikel Murgialdai 33.a iritsi zen helmugara (1:23:16).

Atletismoa

Sakandarrak Araian

IX. Araiako krosean 8 sakandar aritu ziren

Garagarriaren 15ean XI. Araiako Krose jokatu zen, eta makina bat sakandarrek hartu zuten parte. Sakandar azkarrena Fernando Ganuza izan zen, helmugara 29. postuan iritsi zena (23:51). Iñaki Alvaro 43.a izan zen (24:36), Juan Carlos Perez 62.a (26:00), Fernando Mazkarian 70.a (26:15), Javier Camuel 85.a (27:54), Jon Garasa 103.a (28:52), Eusebio Vinagre 142.a (41:06) eta Peio Bergara 146.a (41:18).

Mendi lasterketak

Triku Traila mustutzera

Igandean, 9:30ean, Etxarriko Kanpinetik abiatuko da Triku Trail taldeak lehenengoz antolatutako proba. Atzo eguerdian 279 korrikalari zeuden izena emanda

Triku Trail Kirol Taldeak hainbat babesleren laguntzarekin batera I. Triku Trail mendi lasterketa antolatu du igandean. Lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria da. Proba Etxarri Aranazko kanpinetik abiatuko da, 9:30ean. Korrikalariak 21 km eta 1.400 metroko desnibel positiboa duen lasterketari egingo diote aurre, guztira 2.800 metroko desnibel metatua izango duena. Izena ematea atzo zen ixtekoa eta eguerdian 279 korrikalari zeuden izena emanda.

Harizti, pagadi eta trikuharrietatik barna

Etxarri Aranazko Trikuharrien ibilbidea oinarri hartuta, ibilbide hori luzatu dute antolatzaileek, mendilasterketetan ibiltzen diren Etxarri Aranazko korrikalariak. Proba zorrotza izango da, baina ezberdina. Izan ere, mendi lasterketa gehienetan mendiak igotzera jotzen da. Baina Triku Traila gehienbat basoan da. Kanpinetik abiatuta, haritzen ibilbidetik hariztien eta pagadien artean ia estalita ibiliko dira korrikalariak. "Sentsazioa ezberdina da. Mendi lasterketa baino, baso lasterketa da gehiago. Kristoren basoa da hau eta ibilbide oso ederra" adierazi dute antolatzaileek.

Horrela, kanpinetik aterata Maitzegurretik pasatuko dira korrikalariak, eta segidan Auntzetxetik. Ibilbidean aurrera eginez, Axioren putzua pasatu ondoren



Proba paraje zoragarrietatik pasako da.

trikutrail.wordpress.com

Probako informazio guztia, ibilbideen traka barne. Facebookean ere (TrikuTrail).

Lizarrustira helduko dira. Ondoren Txaradigorri eta Hirumugeta igoko dituzte, Otxentara jaitsi eta Fagamendi igotzeko. Handik jaitsita, Etxarriko kanpinetiko helmugan despedituko da proba. Ibilbidean barna hornidura guneak egongo dira. Antolakuntzak proba egiteko lau ordu eta erdiko denbora eman du. "Jendea animatu dadila eta presio gabe lasai etor dadila. Ez dago guztia zertan korrika egin behar, bakoitzak ahal duen erritimoan egin dezala. Dena den, norbaitek ikusten badu larri dagoela, irteera eremu batzuk ere mar-

katu ditugu, jendeak proba uzteko" adierazi dute Triku Traileko antolatzaileek.

Sariak, opariak eta auzatea

Antolatzaileek 1.200 euro banatuko dituzte sarietan. Lehendabiziko gizonak eta emakumezkoak txapela, trofeoa eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 100 euro eta trofeoa. Lehen sakandarrendako eta etxarriarrendako ere trofeoak izanen dira. Horretaz gain, korrikalari guztiek kamiseta teknikoak jasoko dituzte eta proba ondoren auzate ederra egonen da guztiondako.

Proba antolatzeko makina bat etxarriar eta boluntario ariko dira lanean.

Automobilismoa-triala

San Juanetan, 4x4 trialala

Sakana 4x4k antolatuta, bihar, larunbatean, 16:00etan Arbizuko industrialdean

Sakana 4x4 taldeak Arbizuko San Juanetan ez du hutsik egiten. Biharko, larunbaterako, 4x4 trial proba antolatu dute. Sakana 4x4ko Jose Luis Lakuntza "Risitas" arbi-zuarrak adierazi digunez, Arbizuko industrialdean traba, zulo eta oztopoz betetako 5 gune prestatu dituzte. "15-17 auto arituko dira. Lehendabiziko norabide batean pasatu beharko dituzte 5 guneak, eta denbora ematen badu, gero bestean". Proba 16:00etan hasi eta 19:00etarako bukatzea espero dute.

Autoen azkartasuna baino gehiago, egiten dituzten maniobrak saritzen ditu trialak. "Pilotuek ahalik eta maniobra gutxien egin beharko dituzte 5 guneak pasatzeko eta ahaliketa atzerako martxa gutxien egin. 5 guneak maniobra gutxien egiten pasatzen dituena izango da txapelduna" gaineratu digu Lakuntzak. Izan ere, pilotuaren trebetasuna da baloratzen dena, autoa nola mugitzen duen, aldapak nola igotzen dituen eta bihurguneak nola hartzen dituen.



Pilotuek maniobra ikusgarriak egin beharko dituzte.

Migel Angel Lizarraga dorrobarrarekin batzera. Horretaz aparte, Jon dorrobarrak debutatu egingo du. "Nik ere ateratzea espero dut. Ea posible den" adierazi digu Risitasek. Bukaeran guztiak afaltzera bilduko dira Baxerrin. Antolatzaileek proba ikustera animatu dituzte sakandarrak. Jakina, ikuskizuna ez da faltako.

Pilotu sakandarrak

Arituko diren pilotuen artean sakandarrak izango ditugu. Josu Lizarraga urdiaindarra izango da lehiatuko den pilotuetako bat,



Nonerabili

NAMASTE YOGA

ALTSASU

www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60€ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100€ko txeketa opari.

KIXKUR ESTETIKA

ZENTROA

ZIORDI

30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50€ko erosketetan, etxeko produktua doan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



ANDA BILBON: Windsor kulturgintza galeriak ostegunean mustu zuen *17 miradas para una colección* erakusketa. 17 sortzailearen obra bana dago ikusgai garilaren 7ra arte, tartean

Jose Ramon Andarena. Erakusketak "egungo artearen adierazpen plastiko nabarmenen ikuspegi zabalak" eman nahi du.

Idareta: Akordeoiarendako existitzen ez zen bidea Enrikek sortu zuen

Akordeoilari irurtzundarrak altsasuarrarenganako duen miresmena eta esker ona disko baten bidez adierazi du. Hilaren 6an aurkeztu zuen Fran Idaretak diskoa, Iruñeko Liburu azokan. Aldamenean izan zuen Enrike Zelaia. Eta, nola ez, biek eskutan ibili zuten akordeoia

Maialen Huarte Arano

Musikari agur esan aurretik, lan bat aurkeztu berri duzu. Festival Vasco 2.0 A Enrike Zelaia zer da? Nahiz eta orain dela ia 50 urte argitaratu, Enrike Zelaia *Festival Vasco* eta *Euskalerriko Erromeria* diskoak, oraindik gaur egun, ospe eta eragin handikoak direla onartzen da aditu nahiz herritarren artean. Horrierreparatu, eta gaurko gazteriak obra hauek ezagutu eta disfrutatu ditzan, argitaratzen ditugu guk diskoa, horietatik eragin gehienetara garrantzitsuenak iruditu zaizkigun obrak digitalizatu. Obra hauen egileak esku-soinujoleondakogeure klasikoak baitira.

Zenbat denbora izan zara prestatzen?

Zaila da zehaztea, baina asko. 2008an hasi ginen zenbait obra grabatzen eta aurreko diskoak osatzeko geratzen zitzaizkigunak grabatu ditut. Diskoak pare bat egunetan grabatu ginen. Grabaketa oso azkar egin ginen: irrintzilariak izan ezik, beste guztiok zuzenean grabatu baikenituen obrak guztiak. Baina alde aurretik, diskoaren kontzeptua lantzen, helburuak ondo mugatzen, ikerlanean sakontzen, musikariak behar bezala aukeratzeko, moldaketak prestatzen eta grabaketa estudioan soinu egokia garatzen denbora luzea eman nuen.

Noren laguntza izan duzu?

Jende askoren laguntza izan dut prozesu honetan. Emaztearena eta semearena garrantzitsuenak. Gero Ferminmusic disketearena, jakina. Ezinbestekoa izan da ere musikariaren eta soinu teknikariaren lana.

Musikariak Dani Sanchez (baxua), Iñaki Ramos (bateria), Javier Aramendia (gitarra) eta Mikel Diaz (panderolea) izan dira. Irrintzilari trebeak izan ditugu ere: Vanessa Sanchez, Alazne Fernandez de Muniain eta Mikel Espartera, batik bat. Soinu teknikaria Txuma Huarte izan da, Binario grabaketa estudioa. Oso garrantzitsua izan da ere Iñaki Aldatz argazkilaria, Amaia Egizabal diseinatzailea eta Fermin Riezu bideo grabatzailearena. Eta, azkenik, nabarmendu beharra dago hasieratik bukaera arte jaso dudana Enrike Zelaia laguntza.

Enrike Zelaia bereziki gogoratu duzu CD honetan. Zer dela eta?

Enrike Zelaia eskusoinuaren duintasuna lortzeaz aparte, geure hizkuntza musikala bereziaren hastapenak ikertzeko bidea hasi zuela-ko estreinakoz. Bere ikerketek esker, zer norabide jarraitu dezakegun baitakigu: nortasunezko hizkuntza musikala baten ildotik, alegia.

Akordeoiarendako existitzen ez zen bidea Enrikek sortu zuen. Horregatik zor diogu hainbeste. Mapa eskuetan izanda, aukeratu bidea jarraitzea berez oso zaila da. Baina meritu handiagoko dauka bidea sortzea. Eta askoz gehiago garai bateko akordeoilari guztien miresmena izateak.

Hori guztiagatik eta nigan izan duen eraginagatik, disko honen bitartez Enrike omendu nahi dut bihotz-bihotzez. Bera baita historiako lehendabiziko akordeoilaria eta, zalantzarik gabe, gure herrialdeak eman duen onenetarikoa.

Akordeoilariaren lehendabiziko taupada.

Urte askoren ondoren Fran Idaretaren azken lana plazaratzeak zer sentiarazi zaitu?

Zehazki 25 urte izan dira. Eta lasaitasun handia sentitu dut. Azkenean lau urte mundu akademikoaren eta mundu musikaren artean igaro ditut. Horretan zaudela bikaintasuna mantentzea zaila da. Horregatik, lehentasunak argitu behar izan nituen eta behin betiko erabakia hartu. Beste aldetik, tristura ere sentitu izan dut. Hasieratik akordeoilarien artean elkartzun gehiago lortu nahi izan baitut. Zorixarrez, oso zatikatuta dago akordeoiaren mundua. Horrek asko zailtzen du irizpideak bateratzeko edozein ahalegin. Adibidez, nola egon gaitzeko eskusoinuaren alde eta ez Enrike Zelaia aitzindari handiaren alde? Bere ekarpen musikologikoa ikaragarria izan



Gustura irakurtzen

Etxarri Aranaz koliburutegiko irakurketa taldeak despeditu du bere urteko plana. Taldeak indartsu bukatu du eta animo handiarekin hurrengo ikasturtean esperientziarekin segitzeko. Oso ongi baloratu da egindakoa, eta batez ere, bakoitzak irakurritakoa beste batzuekin komentatzeko aukera edukitzea. Politika izan da taldean ikustea nola oso iritzi ezberdin sortzen diren irakurritakoaren gainean, eta nola batzuek eta besteekin egindako ekarpenarekin norberaren irakurketa aberasten den. Batez

ere, euskal idazleen liburuak irakurri dituzte: J. Muñoz, A. Lertxundi, K. Uribe, K. Jaio eta J. Olasagarre eta I. Arretxe sakandarrenak.

Heldu den urteari begira, bide beretik segitzeko asmoa dute, eta 2014-2015 plangintza oraindik itxi ez badute ere, lastailaren hondarretarako Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* aukeratu dute. Beste aldetik, taldea zabalik dago irakurle gehiago hartzeko; beraz, norbait animatuz gero, jar dadila harremanetan Marta Etxarriko liburuzainarekin.

La Banda del Jefe Bigun

Gaur, 23:00etan Altsasuko Urtzi tabernan

High Voltage tourraren barruan La Banda del Jefe Bigun taldeak gaur geldialdia eginen du Altsasun. Rikardo Aretak, Ismael Katak, Longi Anduezak eta Ibai Hernaizek osatzen dute taldea.

Urtzi tabernan gaur 70 eta 80ko hamarkadetakako rock eta heavy klasiko bertsioak joko dituzte. Taldeak duela hiru urte argitaratu zuen zuzeneko diskoa eta han ere makina bat bertsio jaso zituzten Tequila, Miguel Rios, Rolling Stones, Deep Purple, Barricada edota AC/DC renak. Zuzeneko indartsuan azken horien doinuak eskainiko dira.

Nazabalen mustutze bikoitza

Hendaian eta Carpentrasen bere lanak ikusgai daude

Bi erakusketa kolektiboren mustutzetan parte hartuko du gaur eta bihar Itziar Nazabal margolariak. Hendaian gaur, 18:00etan, mustuko da, *Miradas* erakusketa Mendi Zola kultur gunean. Nazabalek lagun duen argazkilari kubatar batek sustatu du erakusketa kolektiboa. Hiru marrazkilari eta bi argazkilari dira euren lanak erakusten ari direnak. Nazabalek *Biluziak eta pasioa* serieko margolanak eraman ditu, tamaina txiki eta handietakoak. Asteartetik ikusgai dago, garilaren 12ra arte.

Proventzara

Carpentrasako arte garaikideko nazioarteko jaialdia bihar mustuko da. *Les Papillons, tximeletak*, izenburua du jaialdiak, artea erakusteko duen modu bereziagatik. "Tximeleten modura, edozein tokitan, obrak zintzilik daude hirian barna, kale, parke, lorategi eta bestelakoetan. Museoa herrian barna", azaldu digu Nazabalek.

Beraz, larunbatetik agorriaren akabera bitartean 200 artisten lana (1,90 m luze eta 1,50 m zabal) hirian barna zintzilik ikusteko aukera izanen da. Turkia herrialde gonbidatutako artistekin batera Brasilgo,



Italiako edo Frantziako artistak izanen dira. Altsasuara da parte hartzen duen euskal herritar bakarra.

Nazabalek *Biluziak eta erotismoa* serieko lan bat aurkeztu du *Jeux de peau* (azal laztanak). Altsasuarrak azaldu digunez, "obra lantzeko prozesuan garapen bat izan dut. Koxka bat igo naiz. Lantzen ditudan leherketekin erabat erlazionatuta dago. Egin beharra sentitzen nuen eta aurreneko koadro baten sorreran erabili dut". Sortze prozesuaren garapenaren teknika hori etorkizunean talde batekin eta fusioa egiteko asmoa

azaldu digu Nazabalek. Horregatik, Proventzan ikusgai izan den lanaren garrantzia artistikoa eta pertsonala azpimarratu ditu.

Jaialdia ere bada lehiaketa. Epaimahai adituak eta sare bidezko botoek (164. zenbakia) emanen dute saria. Antolakuntzatik dagoeneko aitortu diote kalitatea altsasuarraren lanari. Baina bestelako arrazoiengatik etorri da aitortza. Koadroan gehiegizko erotismoa zegoela eta, parte hartzea onartu ondoren, koadroa zintzilikatzeko erreparatuak izan zituelako antolakuntzak.

baita. Azkenik, oso pozik. Jendearen esker ona sentitu dudalako azkenaldi honetan. Irurtzunenegin nuen azkeneko kontzertua ahaztezina izango da niretako.

Zer izan da eta zer da akordeoia zuretako?

Akordeoia beste modu batez adieraztea ezinezkoak egiten zaizkidan gauzak adieraztea ahalbidetu didana izan da. Nire bihotzaren anplifikadorea izan da urte askotan. Nire arnasteko modua, nire bigarren birrikak. Nik uste dut zaindu dudan neurrian zaindu nauela berak.

Eta musika?

Bihotzetik bihotzera hitz egitea lortzen duen hizkuntza xumea.

Orain arte egindako lanekin, sentimendu bat baino gehiago nagusituko ziren. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Egindako lan guztien artean, aipagarriena *Iruña: guztion hiria* dela esanen nuke. Ahaztezina izanen da niretako bertan lan egiten sortu genuen giro ederra. Musikari handiekin partekaturiko esperientzia izan zen: Enrique Ugarte, Kepa Junkera, Carlos Nuñez, Juan Mari Beltran, Joxan Goikoetxea, Enrike Zelaia bera... Zinez, ahaztezina izan zela.

Joan den neguan, *Taupadak* izeneko ikuskizun berezia eskaini zenuen zenbait



oholtzatan. Hori ere berezia izan zen, besteak beste, musikari askorekin egindako obra izan zelako. Zer izan zen zuretako?

Euskararen taupada sendoa sentiarazi zidan. Esker ona besterik ez zait bururatzen ikuskizuna aipatzen dudana bakoitzean. Luis Orduñari, Alicia Armendarizi, Inma Arroyori, Fermin Idaretari eta Alberto Gonzalez bereziki. Eta bertan parte hartu zuten musikari gonbidatuei, teknikariei, eta abar.

Oholtza eta grabazio estudioak ezberdinak dira oso. Bakoitzak

zein alde on eta txar duela esanen zenuke? Bat aukeratzekotan zein; zuzeneko edo grabazioa?

Bakoitzak bere berezitasunak dauzka. Nire kasuan denetarik egin dut: zuzeneko ikuskizunak, estudioko grabazioak, zuzeneko ikuskizunen grabazioak eta zuzeneko grabazioak estudioan. Azken hori disko honetan izan da. Dena den, bat aukeratu behar baldin badut, zuzeneko ikuskizunen grabaketak aukeratuko nituzke. Prestakuntza bikaina eramatera behar izaten den magia oso berezia da.

Zuzeneko oholtzetan zein izan da jendearen harrera?

Orokorrean oso ona. Egia esan, oso maitatua sentitu izan naiz jo behar izan dudana leku gehienetan.

Oholtza handiak edo txikiak nahiago? Zergatik?

Bakoitzak bere baldintzak ditu. Barne-baldintza hauek argi edukita, edozein lekutara joan zaitezke.

Urteotan lagun izan dituzunak, musikan bidelagun eta oholtzan laguntzaile, nortzuk aipatuko zenituzke eta zergatik?

Ezinezkoa zait guztiak aipatzea. Baina argi daukat Peio Etxarri eta Josune Larrañagaren laguntza ezinbestekoa izan dela. Dani Sanchezek hainbatetan lagundu dit ere. Oscar Sucunzak ere hasi nintzenean asko lagundu ninduen. Behar izan dudana bakoitzean ere, Enrike Zelaia beti egon da prest laguntzeko. Baina, zalantzarik gabe, laguntzarik garrantzitsuena 25 urte hauetan, nire emaztearena izan da. Beti izan dut gertu, laguntzeko prest.

CDa kalean da. Kontzertuak ematen ikusteko aukera izanen dugu? Hala bada, non eta noiz?

Ziurrenik ezetz. Bere momentuan adierazi nuen moduan, oholtzetatik nire behin betiko agurra *Taupadak* ikuskizunarekin izan zen. Disko hau alde egin baino lehen asko miresten dudana musikariari egin nahi izan diodan omenaldi xumea besterik ez da, aipatu ditudan arrazoiengatik.

Etorkizunean, musikaren profesional izateari utzita, zein harreman izan nahi duzu akordeoiarekin eta oro har musikarekin?

Instrumentuarekin berdina: akordeoia ezinbestekoa dudalako beste modura esan ezin ditudan adierazi ahal izateko. Eta musikariarekin antzekoa izango dela uste dut. Gehienetan, miresmeneko eta errespetuzkoa: beti izan den bezala.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

Arte iragankorra

Iraunkorra ez den edozein adierazpen artistikoari deitzen diogu arte iragankorra. Nahiz eta arte mota hau betidanik existitu den, honen kontzeptua XX. mendean sortu zen. Behin-behineko arte hau, une batekoa bezala ulertzen dugu. Alexandre Gustave Eiffel-ek Eiffel Dorrea 1889an sortu zuen, Paris-ko erakusketa unibertsalarentzat. Hura, adibidez, erakusketa bukatzean desegiteko asmoarekin eraikin zen, baina izan zuen arrakastarikusita bertan utzi zuten, eta Frantziaren hiriburuaren ezaugarri ezagunen bihurtu zen. Baina obra iragankorren helburua ez da luzaror mantentzea, beraz noizbait existitu diren proba bakarria argazki eta bideoetan aurkitzen dugu. Iragankorrak diren arte moten artean inprobisazioa, body art-a, moda, makillajea, lorakuntza, piroteknia, ile-apainketa, hondar eskulturak, performance-a eta graffitia aipatu ditzakegu beste batzuen artean. Land art izenez ezagutzen duguna ere, sailkapen honetan egongo litzateke. Naturan aurkitzen diren materialekin (egurra, lurra, harriak, area, ura...) eraikitzen diren

obrei deitzen diegu Land art. Paisaian integratuta eta elementu naturalen menpe daudenez denborarekin desagertuz doaz. Bizitza mugatua duten obrak sortzen diren aldi berean, hauek existitu diren probaren beharra dugu argazki eta bideoen bidez eta, beraz, paradoxa handi bat sortzen da. Arte iragankorrek museoetatik irten nahi badu ere, modu zuzenean bueltatzen da hauetara.

Artistak, behar ekonomikoak direla eta, proiektu, maketa edo erakutsi eta saldu daitezkeen produktuak asmatzera behartuta daude (Christo artistak instalazio monumentalak sortzen dituen aldi berean, txikiagoak eta salgarriak diren beste batzuk egiten ditu). Beste batzuek bideoen bitartez erregistratzen dituzte obrak, salgai bihurtuko diren produktuak baitira. Gordon Matta-Clark-ek eraikinetan egiten zituen mozketen bidez, barneko elementu konstruktibo guztiak agerian uzten zituen, eta haien lekukotasun bakarra argazkien bitartez jaso dugu, Sophie Callen bizitzaren intimitatea eta gertaren berri dugun era berean. Fraçois Alÿs-ek hirian egiten dituen akzio-



Banskyren lan bat.

en eragin politiko eta sozialen ikerketak eta Roman Signer-ek istripuaren bitartez gelditzen den konposaketan emaitza bideoetan ikus ditzakegu. Land art delakoan, instalazioaren tamaina murriztu egiten da museoetara erakusketa moduan eraman ahal izateko (Richard Long). Beraz, komertziala ez den une bateko lana sortzen bada ere, nolahi salgarria eta iraunkorra bihurtzen da. Banksyren graffitiak orain dela urte batzuk ezabatu ziren arren, gaur egun oso garestiak saltzen dira. Natura eta denboraren menpedadenez, edozein izaki bizidun bezala jaiotzen eta hiltzen dira lan hauek. Zein interesgarria lan bat sortzea hil egingo dela jakitun.

Egin zaitez bazkide
www.guaixe.net

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 15%	euria: 53%	euria: 20%	euria: 78%	euria: 60%	euria: 20%
Min: 9 Max: 27	Min: 12 Max: 22	Min: 13 Max: 18	Min: 10 Max: 19	Min: 11 Max: 18	Min: 11 Max: 20	Min: 11 Max: 23

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	30.9	6	72.6
Altsasu	30	7	36.1
Aralar	23	8.8	61.8
Urbasa	28	3	52.9

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
27	5	12	19

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Garagarrileko bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtaketa Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
2. Artazako kanpinean %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

>> 11

galdera

Abelardo Lopez eta Ana Ramos

Denda eskualdatu dute

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



1. Zein izan zen saldu zenuten lehen telebista?
An. 1974ko lastailean zabaldu genuen eta Vanguard etxeko kolorezko telebista izan zen.
Ab. Orduko bi urteko soldata balio zuen, 140.000 pezeta. Luxu bat zen.

2. Non jarri zenuen lehen antena?
Ab. Duela 45 bat urte. Kolektiboa zen. Orduan banakako antena jarzteaz normalena. Gero pisu blokeak egiten hasiziren, eta han jartzen hasi nintzen. Uste dut Altsasuko antena-kolektiboen %90 nik jarri nituela.

3. Nora apuntatzen zuten?
Ab. Hasieran seinale-hartzerik ez zegoen. Sollubeko errepikagailutik hartzen zen eta Altsasun oso gaizki ikusten zen. Horregatik, Urdiainen, mendiaren goiko partean, errepikagailu bat jarri zen eta handik hartzen zen telebista seinalea, TVEko 1. katea, zegoen bakarra. Bigarren katearekin batera Artxuetan hedagailua jarri zuten eta Urdiaingoa bukatu zen.
 ETB 1en seinalea bidaltzeko tresneria jarri zuten Urdiainen, pixka bat beherago. Nik Urdiaingour-biltegiari jarri nuen, ETBren Gasteizko seinalea hartu eta Altsasura igortzeko. Gero Aralarko santutegiari jarriko zen.

4. Haizeteak lagun?
Ab. Kandelak pizten nituen haizetea indartsuagoa izan zedin eta ekaitzak kazkabarra bota zezan, han dago negozioa (barrez). Dei asko jasotzen ziren halakoetan. Jendeak itxaron nahi ez duenez, ahal duena bilatzen du. Bakarren batzuk konpontzen saiatzen ziren eta gero bikoitza ordaindu beha-

rra zuten. Baina uste dut antenak ongi jarriak utzi ditugula, ez dute matxurarik. Haizete edo kazkabarregatik ez bada, iraupen handia dute antenek eta ez dira izorratzen.

5. Teilatuak zer moduz zeuden?
Ab. Ongi. Mugitutako teilaren bat ikusiz gero hura ongi jartzen nuen.

6. Bertigorik sentitu duzu?
Ab. Sekula ez.

7. Eta noiz hasi zen kolorezko telebisten salmenta orokortzen?
An. 1984 aldera. Orduan epeka asko saltzen zen.
Ab. Baina asko balio zuten. Gainera marka ugari zeuden. Orain marka arraroagoak daude.

8. Gerora kodetutako saioak eta deskodegailuak etorri ziren, ezta?
Ab. 27 urtez Canal +eko banatzaile izan ginen. Urte zoragarriak izan ziren. Denetarik, dirua irabazi, aparailuak jarri... baina kate berrien sorrerarekin, LTDA eta besterekin hori ere pixkanaka izorratu da. Nik uste dut Canal + jartzen zuten jendearen %80 futbola ikusteko zela. Antena parabolikoak ere ugari jarri nituen giltzadun deskodetze tresnak sate-lite bidezko seinalearengatik ordezkatu zituztelako.
An. Iruña eta Gasteiz arteko banatzaile ofiziala ginen.

9. LTDrekin zer etorri zen?
Ab. Beste negozio gehigarri bat. Batzuek LTD gailua erosi zuten eta beste batzuek hura erantsia zuten telebista berriak. Orain aldaketa berria heldu da eta orduan erosi ziren telebista haiek guztiek ez dute bat bera ere balio-

ko, ez baitaude bereizmen handirako prest. Deskodetzailea edo telebista aldatu beharko da. Aldaketa horrek egin egon behar zuen, baina diru faltagatik ez da egin. Internet barneratua duten telebistak dagoeneko badaude, baina ez du edozein gailuk sarean ibiltzeko aukera ematen. Garestiagoak dira.
An. Eta aldaketa egiten denean jendeak dendaz gogoratu beharko du.

10. Bonbilla normaletik kontsumo txikikoetara eta LEDera pasa gara, a ze saltoa, ez?
Ab. Bai eta argindarran lehen 125 v-tik 220 v-ra pasatu ginen. Transformadoreak saldu ziren orduan.
An. Bonbillekin orain eromena da: mota ugari, vatio kopurua, kolorea... mundua da. Dozena erdi bonbilla izatetik 100-200 izatera pasatu gara. Guk aholkatu behar izaten diegu. Gazteak prestatuta daude, adinekoei kostatzen zaie, baina sartzen ari dira. LEDa da etorkizuna. Gutxi kontsumitzen eta kutsatzen du. Besteak desagertuko dira.

11. 40 urte eta gero, dendak jarraituko du?
An. Bai. Abelardoren osasunagatik lana atzera botatzen hasi ginen. Eskualdatzeaz hitz egin genuen. Bukatu dela mentalizatu behar izan dugu. Baina denda eskualdatzen saiatu nahi genuen, bizia duelako; ez genuen itxi nahi. Argiztatzean lan asko egiten dugu eta Abelardoren lan guztia berreskuratu daiteke. Gainera, jendeak galdetzen zuten nora jo behar zuten ixten bagenuen. Elena Garisoain eta Jacinto Bengoetxea dira aurrerantzean hemen ariko direnak.

Festaz maitemindu!

948 564 275 argi@guaixe.net

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

%5eko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei